



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2015eko hirugarren
hiruhilekoa

aurkibidea: edukiak eta emaitzak

a. aurkezpena	3
b. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	7
c. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	11
d. euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	17
e. eranskina	23
<hr/>	
<i>Fitxa teknikoa</i>	27

a) aurkezpena

1. kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da? 4
 2. zer esan nahi du indizearen bilakaerak? 5
 3. edukiak 6
-

1. kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

¹ *Consumer Confidence Indicator*; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritzia berri emateko.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



2. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek



3. edukiak

Txosten honetako edukiak hiru multzotan sailkatu ditugu, txostena aurkezteko lehen honez gain.

Konfiantza-indizea

Familien Konfiantza Indizearen bilakaera eta estatuko, EBko eta erreferentziazko beste herrialde batzuetako emaitzen alderaketa.

Konfiantzaren osagaiak

Familien konfiantzaren osagaiak. Ekonomia orokorrari, etxeko ekonomiari, aurrezteko gaitasunari eta langabeziaren bilakaerari buruzko indize partzialekiko emaitzen bilakaera.

Erosketa erabakiak

Pertsonen kontsumo- eta inbertsio-erabakien aurrean bizi dituzten egoeren berri ematen duten gai osagarriak.

Hauek balioztatzen ditu: prezioek izan dezaketen bilakaera, erosteko unearen egokitasuna (orokorrean) eta etxerako erosketa garrantzitsuak (300 €-tik gorakoak) egiteari edo etxebizitza nahiz autoa erosteari buruzko igurikimenak.

Emaitzen eranskina ere barneratzen da.


b) kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera – 2015eko III. hiruhilekoa

- 4. konfiantza-indizea apur bat okertu da..... 8**
 - 5. Estatuko eta EB-28ko Konfiantza Indizearekin bat dator.....9**
 - 6. eta Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko konfiantza indizearekin ere bat dator.....10**
-

4. konfiantza-indizea apur bat okertu da


2015eko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza-indizeak bi puntuko hiruhilekotik hiruhilekorako jaitsiera izan du eta -6 balioan kokatu da.

Emaitza horrek urtearen hasieran abian jarritako berreskuratzeko joera oraingoz haustea eragin duen atzerakada arina eragin du. Hala eta guztiz ere, EAEko familien balorazioa duela urtebete adierazitakoa baino askoz ere hobea da (-17)



5. Estatuko eta EB-28ko Konfiantza Indizearekin bat dator

Euskal kontsumitzaileen konfiantzak 2015eko hirugarren hiruhilekoan izan duen jaitsiera arina bat dator Estatuan ikusitako bilakaerarekin (indizea 3 puntutan okertu da eta berriro ere balio negatibotan dago) eta EB-28ko herrialde guztizkoarekin (ehuneko -5 eta -2 puntu).




* EB-28 multzoaren eta Espainiaren 2015eko III. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta uztaila eta abuztuko datuen batez bestekoari dagozkie.

6. eta Frantziako, Alemaniako eta Erresuma Batuko konfiantza indizearekin ere bat dator

Familietak konfiantzak izan duen jaitsiera txikia Frantzian ere sumatu da (ehuneko -1 puntu). Bertako indizea oraindik ere alderatutako hiru herrialdeen artean okerrrena da (-18 2015eko 3. hiruhilekoan). Erresuma Batuan eta Alemanian ere oso gutxi jaitsi da indizea, baina balio positiboak eustea lortu du (3 eta 1 puntu hurrenez hurren).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuararen eta Alemaniaren II. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira, eta uztaila eta abuztuko datuen batez bestekoari dagozkie.


c) euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak

- 7. geldialdia gertatu da ekonomia orokorraren igurikimenean..... 12**
 - 8. langabeziaren inguruko igurikimena okertu egin da.....13**
 - 9. eta ezkortasuna da nagusi familiako igurikimen ekonomikoan.... 14**
 - 10. konfiantza falta da aurrezkoa berreskuratzeari dagokionez 15**
 - 11. gelditu egin da familien konfiantzaren berreskuratzeko joera16**
-

7. geldialdia gertatu da ekonomia orokorraren igurikimenean

2015eko hirugarren hiruhilekoan EAEko familiek ekonomia-egoera orokorraren inguruan egin duten balorazioari dagokionez (12 hilabeteko aurreikuspena kontuan hartuta), iritzi orokorra "berdin jarraituko du" dioena da. Okertu egin daitekeela uste dutenen taldeak, gainera, apur bat gora egin du.


Oro har, ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruko igurikimen-indizea -2koa da; datu hori 2. hiruhilekoko datuekin alderatzen badugu, bi puntu okerragoa dela ikus dezakegu, baina 2014. urtearekin alderatuta, hobekuntza jarraituko joera mantendu egin da.



8. langabeziaren inguruko igurikimena okertu egin da

Enpleguaren bilakaeraren inguruko igurikimenak funtsezko faktorea dira familien konfiantzari dagokionez: kontsumoko, aurrezkiko eta inbertsoko estrategiak bultzatzen dituzten egungo eta etorkizuneko errentak lortzeko bermearekin lotuta daude.


2015eko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familietako langabeziaren bilakaerarekin lotutako igurikimena nabarmen okertu da (8tik 1era). Hala eta guztiz ere, ez dela okertuko dioen ustea (edo berreskuratzen hasiko dela dioena) mantendu egin da, baina gai horren inguruan benetan baikorrak diren balioen joerarik ez da ikusi.



9. eta ezkortasuna da nagusi familiako igurikimen ekonomikoan

Azken urteotako egoera dela eta (familien askoren artean enplegua eta errentak galdu dira), familiako egoera ekonomikoaren inguruko igurikimena okertu egin da.


2015eko hirugarren hiruhilekoan, igurikimen horren indizea -7 puntukoa izan da; hau da, bigarren hiruhilekoko baino apur bat okerragoa (-5) eta bat dator familiei beren egoera benetan hobetuko dela aurreratzea ahalbidetuko liekeen gertuko adierazleen gabeziarekin (enplegua, esate baterako).



10. konfiantza falta da aurrezkoa berreskuratzeari dagokionez

Kontsumitzaileen konfiantza osatzen duten lau indizeen artean, aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenaren indizea da profil aldakorrena duena, baina oraindik ere ezkortasuneko balioetan kokatuta dago.

2014. urtean eta 2015eko lehen hiru hiruhilekoetan, hurrengo hamabi hilabeteotako aurrezteko gaitasuna aurreko urtekoa baino txikiagoa izango dela dioen iritzia izan da nagusi, eta ez du erakutsi berreskuratzeiko profilik (-17 2015eko hirugarren hiruhilekoan).



11. gelditu egin da familien konfiantzaren berreskuratzeko joera

EAEko familien igurikimenen indizearen balantze orokorra -6 puntukoa da 2015eko 3. hiruhilekoan. Beste nolabait esanda, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, jaitsiera txikia gertatu da (azken 7 hiruhilekoekin alderatuta, aurrekoan hobekuntza nabarmena gertatu zen).

Horrenbestez, urteko 3. hiruhilekoak EAEko familien konfiantzaren geldialdia edo kontsolidazioa erakusten du oraindik ere negatiboak diren balioen inguruan (ezkorrak), baina hobekuntzara bideratutako joera ikus daiteke.

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



	<u>IV H-14</u>	<u>I H-15</u>	<u>II H-15</u>	<u>III H-15</u>	<u>Aldea</u>
Familien konfiantzaren indizea	-19	-9	-4	-6	-2
Ekonomia orokorraren indizea	-21	-11	0	-2	-2
Langabeziaren bilakaeraren indizea	-17	-3	8	1	-7
Etxeko ekonomiaren indizea	-15	-9	-5	-7	-2
Aurrezteko gaitasunaren indizea	-25	-13	-19	-17	+2

d) euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak


- 12. familiek ez dute aurreratzen prezioen hazkundean igoerarik18**
- 13. erosteko unearen balorazioa hobetu egin da19**
- 14. baina ez da erosketarako asmoa areagotzeko nahikoa20**
- 15. etxebizitza/autoa erosteko asmoa ere ez da hobetu 21**
- 16. atonia kontsumoa (nabarmenki) berreskuratzeko 22**
-

12. familiek ez dute aurreratzen prezioen hazkundean igoerarik

2015eko 3. hiruhilekoan, EAEko familien artean nagusi izan da prezioen bilakaerak azken hilabeteotan izan duen antzeko joerari eutsiko diola dioen ustea: bi lagunetik batek (% 45) uste du prezioek berdin egingo dutela gora, eta hirutik batek (% 33) uste du polikiago igoko direla.

Horrenbestez, eta beste adierazle batzuen bilakaerarekin bat eginda (KPIa, adibidez), EAEko familiek inflazio txikiagoko egoera gertatuko dela aurrez ikusten dute.

Zure ustez, nola haziko dira¹ prezioak hurrengo 12 hiletan?
(pertsonek / familien %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

13. erosteko unearen balorazioa hobetu egin da

Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

2015eko hirugarren hiruhilekoan hobetu egin da etxeko artikuluak (gastu handia eskatzen dutenak) erosteko egungo unearen inguruko balorazioa. Une txarra dela uste duten familien kolektiboa nabarmen jaitsi da (% 47tik % 28ra) eta gehiengoaren iritzira igaro dira (% 53ren ustez, “berdin dio”). Erosketa mota horietarako une ona dela uste duten familien kopuru berbera mantendu da.




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

14. baina ez da erosketarako asmoa areagotzeko nahikoa

Nolakoak uste duzu izango direla etxeke gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeke konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

Inflazio txikiko egoera aurrez ikustea edo erosteko unearen balorazioa hobetu izana ez dira erosketarako erabakia mobilizatzeko behar adinakoak. 2015eko 3. hiruhilekoan, erosketako asmoaren indizea aurrekoan ikusitakoaren oso antzekoa da (-12 eta -10ekoa hurrenez hurren). Erosketa horiek askoz ere txikiagoak izango direla diotenen kolektiboa (% 10, ehuneko +7 puntu) ugaritu izanak eragin du emaitza hori, eta erosketa berberak egingo dituztela uste dutenen kopuruak behera egin du (% 58, ehuneko -8 puntu).


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(pertsonek / familien %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

15. etxebizitza / autoa erosteko asmoa ere ez da hobetu

Etxebizitza erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)



Autoa erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)



Etxebizitza erosteko igurikimenez oso maila baxuetan jarraitzen dute.

EAEko familien % 2k bakarrik aipatu du datorren urtean etxebizitzako inbertsioren bat egiteko probabilitateren bat duela.



Ibilgailua erosteari dagokionez, 2015eko hirugarren hiruhilekoan EAEko familiek emandako erantzunak urte osokoaren antzekoak dira. % 4k erantzun du erosteko asmoa izan dezakeela.

16. atonia kontsumoa (nabarmenki) berreskuratzeko

2015eko 3. hiruhilekoan, EAEko familietako prezioen bilakaeraren inguruko igurikimenak laburtzen dituen adierazleak hobekuntza argia erakutsi du (+18) eta baikorra ere bada (11 puntu). Bestalde, erosteko unearen balorazioaren inguruko igurikimenak hobetu egin dira (+23), baina oraindik ezkortasuna da nagusi (-10).

Erosketako asmoaren igurikimena oraindik ere balio ezkorretan dago (-12). Erabaki horretan eragina izaten dute prezioen egoerak eta erosketako unearen testuinguruak, baina batez ere familiaren egoerari edo enpleguari buruzko igurikimenak izaten dira erabakigarriak. Horien balorazioa apur bat okertu da 2015eko hirugarren hiruhileko honetan. Hitz gutxitan esanda, EAEko familien kontsumoa berreskuratzeko atonia (nabarmena) suma daiteke.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>IV H-14</u>	<u>I H-15</u>	<u>II H-15</u>	<u>III H-15</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	13	3	-7	11	+18	
Erosteko unearen balorazioa	-29	-21	-33	-10	+23	
Erosketak egiteko igurikimenak	-17	-14	-10	-12	-2	

e) eranskina

I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea	24
II. Konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera	25
III. Beste adierazle batzuk	26

Laburpena: konfiantzaren indizea

IV H-14

I H-15

II H-15

III H-15

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea (hurrengo 12 hilak)

- EAE
- Estatua*
- EB*
 - Frantzia*
 - Alemania*
 - Erresuma Batua*

-19	-9	-4	-6	→
-10	-1	3	1	→
-8	-4	-3	-5	→
-23	-18	-17	-18	→
-1	1	3	1	→
4	4	4	3	→

Osagaiak: familien konfiantza. EAE (hurrengo 12 hilak)

- Ekonomia orokorra
- Etxeko ekonomia
- Langabezia
- Aurrezkia

-21	-11	0	-2	→
-15	-9	-5	-7	→
-17	-3	8	1	↓
-25	-13	-19	-17	→

Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE (hurrengo 12 hilak)

- Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak
- Erosteke unearen balioztapena
- Erosketak egiteko igurikimena

13	3	-7	11	↑
-29	-21	-33	-10	↓
-17	-14	-10	-12	→

Erosketa handiak. EAE (hurrengo 12 hilak). **

- Etxebizitza
- Autoa

1,6	1,0	2,1	2,1	→
4,5	3,4	3,5	3,1	→

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* II hiruhileko datuak uztaile-abuztuko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko)

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

IVH- 14

I H-15

II H-15

III H-15

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea (hurrengo 12 hilak)

• EAE

Adin-mailak

- 25 eta 39 urte bitartean
- 40 eta 54 urte bitartean
- 55 eta 64 urte bitartean
- 65 eta 74 urte bitartean

Lan-egoera

- Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)
- Langabea
- Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)

Familia-unitatearen hileko errenta

- 1.700 €-rainokoa
- 1.701 eta 2.800 € bitartekoa
- 2.800 €- tik gorakoa

-19

-9

-4

-6



-17

-6

-6

-1



-14

-11

-1

-2



-22

-10

-5

-14



-28

-9

-4

-13



-9

-4

0

1



-39

-25

-16

-18



-24

-9

-3

-12



-36

-26

-16

-23



-19

-6

-3

-4



6

8

13

8



Beste adierazle batzuk	III H - 14	IV H - 14	I H - 15	II H - 15	III H - 15 ^(P)	(azkena)
BPG	1,5	2,1	1,9	2,9	-	II hir.
Familien kontsumoa	2,1	3,4	0,3	3,3	-	II hir.
Afiliazioa	-0,2	1,4	-0,1	0,8	-1,2	uzt- abuztua
Erregistratutako langabezia	-2,8	-0,2	1,8	-5,6	-4,4	uzt- abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	-0,5	1,0	-0,3	-0,1	-	II hir
Azalera handien salmenta-indizea	-3,8	2,8	-0,6	0,3	-0,5	Uztaila
Etxebizitzen salerosketa	-7,6	-3,5	21,0	10,3	-	II hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-7,2	19,3	1,2	4,7	-	II hir.

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko. Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatzeko da azken aldakuntza.

fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Abuztuaren 4. astean eta irailaren lehengoan (2015eko III. hiruhilekoa)*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm

Eskerrik Asko